

TOKIKOM

# begitu

18 urte

2020ko apirilaren 16a  
hamabostekaria  
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

338

**Leire Ajuria**  
Senegalen  
izandako optikari  
ubideztarri  
alkarrizketea

12. orrialdea

**Alex Txikon liburu eta dokumentalak prestatzen dago**

Everesteko espedizioaren ostean, Unai Ormaetxeak Alex Txikonen meditazioak jasoten dauan liburua kaleratu dau. Oin, itxialdi sasoiaren, mendizalea etxean da eta natura faltan bota arren, ez jako zereginik falta, beste liburu eta dokumentalak ditu buruan. **10. orrialdea**



**Dimako**  
Jaietako Pelota  
Txapelketea  
antolatzen  
hasiak dira

11. orrialdea

## BEGITUK hamazortzi urte bete ditu

Nagusi egin da BEGITU eta sareko presentzia indartu gura dau.

**H**asikeran BEGITU hilabetekaria zan eta 2008tik aurrera hamabostero daukagu Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetan. Guztira 22 aldizkari argitaratzen dira urteko; garagarriean eta abuztuan aldizkari bakarra ateraten da-eta. 7.300 aleko tiradea dauka eta 2009ko udatik aldizkariaren webgunea be martxan dago.

2001ean euskera bera eta, batez be, euskerazko hedabideak sustatzeko helburuagaz, eskualdeko euskalzale batzuek, hainbat bide aztertu ostean, Zertu Kultur Elkartearen eratu eben lehenengo, eta, gero, BEGITU.

BEGITUKO lehen portadan argazkiko Leire Aginaga artezitarra agertu zan. Urte bi baino ez eukazan orduan, hogeit hiru urte ditu egun. BEGITUGAZ batera hazi dala esan geinke eta Zertzean ataleko kolaboratzailea da.

Oingo sasoiaren, komunikaziorako teknologia barriak eskaintzen dituen tresnak, eta horrekin ekarritako abantailak, behar ditu BEGITUK. Hau da, betiko paperezkoaren ondoan sareko BEGITU eraginkor eta indartsu bat behar da. Holan, webgunea bultzatzeaz gainera, sare sozialetan be egon behar dau. Eta erronka hartzeako prest dago. **8. eta 9. orrialdeak**



ARRATIA

### Itxialdi sasoirako behin-behineko sailak BEGITUN

Diseinu barria dakar BEGITUK, azal honetan ikusi dai- teken moduan. Mantxetea be barria da, moderno- goa eta minimalistagoa, oingo sasoi hobeto ego- kitzen dana. Izan be, gauza asko aldatu egin dira, oin dala 18 urte BEGITU sortu zanetik.

Ez da barrikuntza bakarra. Etxetik urten ezina eroa-

ten alkarrerri lagunduteko sail barri bi egongo dira alarma egoereak irauten dauan bitartean: Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea eta Begitxio animoak emoteko mezu eta irudien saila. Argazki, testu eta irudiak, [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera bialdu behar dira parte hartzeako. **5. eta 7. orrialdeak**

ARRATIA

### Osasun krisiak hobera egin dau baina etxealdia luzea izan daiteke

Momentuz alarma egoerea apirilaren 26ra arte luzatu da eta baleiteke lu- zapen gehiago egotea be. Izan be, osasun krisiak hobera egin dauan arren, oindino mantenduko dira neurriak. Fabrika eta eraikuntza arloko lan ba- tzuetan bueltau dira lanera segurtasun neurriak hartuta, baina eskolak, den- da gehienak eta udal instalazioak zarratuta jarraituten dabe. **5. orrialdea**

Gugaz harremanetan ipinteko

Publizidadea:  
649 979 115

# begitu

94 631 73 14  
eta  
649 979 112
 [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)
[www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**EKIN**  
30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)  
[eraiketak@construccioneseekin.com](mailto:eraiketak@construccioneseekin.com)

# Literatura txokoa

## LARANJA MEKANIKOA

Zalantza barik, *Laranja Mekanikoa* Anthony Burgess idazle estimagariaren eleberririk ezagunena da, baina argitaratu zanean, 1962an, oharkabean pasau zan. Benetako ospea 1971n etorri jakon, Stanley Kubrick-ek zinematatu ebanen. Orduan bai, zalaparta itzela sortu zan: pelikuleak kritika gogorak jaso ebazan erakusten eban indarkeria gordinagaitik, eta honek gazteriaren izan eikean eraginagaitik. Herrialde batzuetan debekatu egin zan, eta AEBn film pornografikoentzat erabiltzen dan X kalifikazioa emon jakon. Erresuma Batuan, filmaren eraginari egotzi jakozan zenbait krimen —gazte batzuk eskale bateri emondako jipoia, eta taldean egindako bortxaketa bat, besteak beste—,

eta Kubrick-ek berak erretiratu egin eban pelikulea zinema aretoetatik, presinoai amore emonda. Burgess-ek, ostera, tinko eutsi eutsan kritiken zaparradeari, bere liburuak asmo moral eta filosofikoak eukazala behin eta berrero azalduz, bere argudioak inor gitxi entzun gura ebazan arren. Baina, gatozan harira.

*Laranja mekanikoa*, etorkizun hurbil baten girotutako eleberririk distopikoa da. Alex eta bere lagunak —guztia nerabeak— moloko izeneko esne eta droga nahasketa bat edaten dabe, eta ultraindarkeriaz gozaten dira: bortxaketak, kate eta labanakaz egindako burrukak, lapurretak, jipoiak... Edozerk balio dau zirrera sentidutearren. Baina, egun baten, polizia

harrapau egingo dau Alex, eta kartzelan, Ludovico izeneko bergizarteratze programa esperimental baten sartuko da, bere nortasuna erabat aldatuko dauana. Hau guztiau, Alex-ek berak kontetan deusku lehenengo personan, berak eta bere lagunak erabiltzen daben nadsat berbakera erabilia.

Burgess-ek, noski, ez eban inondik inora bat egiten bere pesonajeak erabilitako indarkeria honegaz guztiagaz. Ondo ezetuten eban biktimen oinazea: gerra denporan, bere andrea, Lynn, bortxatu egin eben lau desertore estadubatuarek, gertakari honen ondorioz sabelean eroian umea galdu ebalarik. Mamu eta deabru honeei aurre egin eutsen Burgess-ek liburu hau idazteko, ataletako baten, Alex eta bere lagunak antzerako krimen bat egiten dabe-eta. Baina bitxia bada be, idazleak

komedia baltz baten tonua emon eutsan eleberriri, kontautakoak, hain larria izanda, groteskoaren maskara behar baleu legez. Eta oindino bitxiagoa dana: biktimearen ikuspuntua hartu beharrean... kriminalena hartu eban! Izan be, liburuaren helburua erabakimen libre aldarrikatzea da; personak —persona izateko— ongiaren eta gaizkiaren artean aukeratzeko askatasuna izan behar dabela, alegia. Dohain hau ez deutso ukatu gura ezta Alex zitalari be. Beraz, erredimiduko bada aukera personal baten ondorio izango da, eta hau kontuan ez daukien bergizarteratze programak porrot egingo dabe. Kubrick-en pelikuleak mezu hau traizionau egin ebala uste eban Burgess-ek, eta horregaitik, sabore garratza itxi eutsan, estetiki sano gustau jakon arren.

**Ekaitz Zabala Iturbe**

**Anthony Burgess**

**Laranja mekanikoa**

**Itzulpena eta hitzaurrea: Ion Olano Carlos; epilogo: Harkaitz Cano**

**Meettook, 2018**

**242 orrialde**



### TELEFONO INTERESGARRIAK

#### Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

#### Guardiako Farmaziak 09:00etatik 22:00etara Apirilaren 13tik 19ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

#### 22:00etatik 09:00etara Melero. Amorebieta-Etxano.

**Apirilaren 20tik 26ra**  
Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

#### 22:00etatik 09:00etara Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

**Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra**  
Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

#### 22:00etatik 09:00etara Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

#### Urte osoan

**22:00etatik 09:00etara**  
Zoco Robles. Urbi 15. Basauri.

#### Medikuak

**Arantzazu:** 94 631 56 89  
**Artea:** 94 673 92 11  
**Areatza:** 94 631 71 52  
**Bedia:** 94 631 34 13

**Dima:** 94 680 19 74

**Igorre:** 94 600 74 63

**Lemoa:** 94 631 31 16

**Ubide:** 945 38 50 14

**Zeanuri:** 94 673 91 49

**Zeberio:** 94 648 20 79

#### Udaletxeak

**Arantzazu:** 94 631 56 89

**Artea:** 94 673 92 05

**Areatza:** 94 673 90 10

**Bedia:** 94 631 42 00

**Dima:** 94 631 57 25

**Igorre:** 94 631 53 84

**Lemoa:** 94 631 30 05

**Ubide:** 945 45 03 22

**Zeanuri:** 94 673 91 46

**Zeberio:** 94 648 10 79

#### Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

#### Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

#### Parketxea

94 673 92 79

#### Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

#### Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

#### Euskotren

94 433 33 33

#### Areatzako Notariotza

94 673 92 26

#### Bizkaibus 94 612 55 55

#### Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

#### Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik

22:30etara 30 minuturo, azkenengoa

22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

#### Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30

minuturo.

#### Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

**Otxandiotik urtekerak:** Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

#### Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

#### Zeanuri-Lemoa-Bilbo

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Bilbo-Lemoa-Zeanuri

#### (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan:

Zeberiotik: 7:00, 08:20, 09:10\*, 11:00, 11:45\*,

14:10, 15:00, 16:10, 18:30\*, 20:20.

\* Basauriraino (Ariz) heltzean da.

Gainontzekoak Ugaoraino. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 8:40, 10:20, 11:20, 14:30, 16:30,

19:40.

Basauritik (Ariz): 10:00, 19:20. Jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

#### Artea-Zeberio-Ugao

Lanegun eta zapatuetan: 6:50, 8:00\*, 14:00,

16:00.

\* Igorretik urtetan da bost minutu lehenago.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ugao-Zeberio-Artea

Lanegun eta zapatuetan:

Ugaotik: 7:20\*, 13:05, 15:30, 20:40.

Basauritik (Ariz): 12:45.

\* Igorreko Instituturaino heltzean dira.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

#### Ermitabarri-Arriorriaga

Jaiegunetan: 8:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

#### Arriorriaga-Ermitabarri

Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

#### La Union 94 427 11 11

#### Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

#### Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

**Argitaratzailea:** ZERTU Kultur Elkartea.

**Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

**Telefonoa:** 94 631 73 14.

**Helbide elektronikoa:** [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

**Webgunea:** [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

**Zuzendaria:** Iñigo Iruarizaga.

**Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

**Erredakzino taldea:** Alvaro Rabelli.

**Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

**Publizidatea:** Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

**Banaketea:** Leire Inuntziaga eta Laiene Pagazaurtundua (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).

**Tiradea:** 7.300 ale.

**Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.

#### Babesleak:



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskeronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Mahaikada



Jai eta ospakizunetan mahai baten inguruan batuten dan jente edo jateko moltoari mahaikada esaten jako (maikadéa, ahoskatuta). Izan leiteke jatekoagaitik edo jente kopuru handiagaitik. Sinonimoa, batuan, mahaitara da. Adibidea: "Guri paellea sano gustetan jaku. Ba, alozoko mahaikadea ipini dozue txokoan!". Mahaikada berbea bete zenbatzaileagaz lotu leiteke; esate batetako, esaldi honetan: "Mahai bete lagun egon gara jaten".

## ERETXIA

### Zaborra

Zentzu barik konsumidu ostean, —birziklatzeak gure konzientzia zuriketan daukan garrantziaz ohartzeko asirik be hartu barik— pausu azkarrez, harro egin ohi dogu koloretako eukiontzietarako osteratxoak. Gaur, satsa botatetik bueltan, irratiko alkarrizketan, COVID-19, koronabirus, eta pandemia berben frenesian, Zaldibargo gertaera ageri da lotsor. Gaiaren inguruan zalantzak mila eta galderak beste horrenbeste: "Ze demontre izan behar dau buruan, konfinamentu betean eta osasun-hondamendi minean, begiak ordenagailuko pantailan iltzatuta —eta zeharka irratia entzunez— eskolarako birziklatzeaz idatzi behar dauan umeak?".

Euskadi Irratia oilategiaren pare, soluzinoetatik urrun, bertaratuak mokoka ibili dira tarte luzez, nok bere alderdiaren beharrak hobeto aseko. Beharbada, konturatu be egin barik gaitzespen horreek guztiak kapitalismoaren basakeria ezkutatu besterik ez dabela egiten. Izan be, eztabaidak irauten daben artean, bulego ilunetan, Zaldibargo gertaerearen arduradun nagusiak presinoa egiten jarraitzen dabe; beti be, herria zaborrez beteteko eta onurak piltzen jarraitu ahal izateko.

Nabarmena da arazoa ez dala gobernu honegaz edo beste horregaz konponduko. Benetako metatzaileen podere erreala da aldatu beharrekoa eta, horregaz batera, bai produktino modua, baita gizarte antolaketea be. Hain zuzen be, Hego Euskal Herrian legezko hamarnaka zabortegeiz gain, han-hemenka, beste horrenbeste legez kontrako topau daitezke —lehenengoak zein bigarrenak elementu kutsatzailez lepo dagoz—. Hori gitxi balitz lege, Kantauri itsasoa bera iraunkorki da arpilatua, eta arnasten dogun airea Europako kutsatuenetakoa da. Azken baten, indarrean daukagun ordenantza ekonomikoa irabaziak produziduteko baino ez dago antolatuta, eta ez gizartea



### SAIOA ZUBIAUR

Kazetaria eta AEKko irakaslea

zerbitzatzeko. Esan barik doa kapitalak mota honetako gune degradaduak sortzean, etenbarik, jarraituko dauala. Gainera, disimulatzeko asmoz, eskoiko zein ezkerreko ordezkarietan, praktika ekologistetan eta birziklagarrietan oinarritutako diskursoak txertatzen segiduko dau.

Irratiko hitz-aspetuari adi denporea gehiago alperrik galdu barik, gogora daigun, hango eta hemengo ordezkariak irratian eztabaidan dabilzan artean, Joakin eta Alberto —kapitalak eraildako langileak— etxetik falta dirala. Afera horrek badirudi ezer gitxi daukala ikusirik gure herrietan kale-kantoi, errepide-bazter eta, kasu batzuetan, lurpean dotore-dotore jarrita dagozan koloreetako eukiontziaz. Zoritxarrez baina, loturea estua da; eta, beraz, zer hobe itsumustuan hausnarrerako eta alkar zaintzarako edegi jakun une berezi hau patxadaz baliatzea baino? Bada, aferari erantzukizunez helduz, ez gaitzean horrenbeste kezkatu eskola-umeai arlo akademikoan faltauko jakiezan garrantzi bako edukiez, eta emon deieguzan bizitzarako benetako lanabesak: Batetik, berandu baino lehen, askatu daiguzan COVID-19aren krisiaren testuinguruak ekarri dauan urrutze sozialak zein gaur arteko sare sozialetako jardunaren erabilera desegokiak sortu dauan jendarte atomizautik; oro har, isolamentutik. Bestetik, berreskuratu daiguzan ez dala hainbeste galdu genduzan horren baliotsuak diran lotura sozialak; beti be, alkartasuna oinarri. Eta amaitzeko, behingoz, ipini deieguzan erasoaldi ekonomiko eta politiko honeri izena: burgesia.

Hortaz, arrastiko zortziretako txalo artean galdu ostean —edo aurretik— hartu daigun tartetxo bat, ganoraz, langileak nok explotatzen eta lurperatzen dituan gogoetatzeko, eta horretatik zelan askatu gaitkezan hausnartzeko. Finean, txikienai sistema kapitalistea, benetan, ulertzen lagunduteko denporea hartu daigun.

## LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

## Dir-dir

**B**adira intensidade gehiagaz dir-dir egiten daben argiak, belaunaldi eta eremu zehatz batzuetan baino sortzean ez diran izaki arraroak. Bat-batean agertzen dira ezerezaren erdian, inongo abisu barik, sorpresaz. Kolore berezi bat daukie, definitzeko gatxa. Euren distira hain da indartsua, eguzkiak argitzen ez dituan bazter eskinak be zipriztintzen dituela. Eremu idorrek, grisak eta aspergarriak bizitzaz beteten ditue. Tristurea irribarre bilakatzen dabe, haserrea algarra. Emozinoen alkimistak dira.

Ez dira ohikoak. Hain prezia-  
duak dira bidaiariak heltzean dirala urrundik euren ingurura biltzeako irrikaz, distira liluragarriaren onurez aprobetxetako asmoz. Argi-ehiztariak be euren tramankuluakaz ibiltzen dira izpiak harrapau guran. Hain dira estimauak, pentsau. Baina kontuz ibili beharra dago, oso izaki delikaduak dira-eta. Izan be, espazioaren beharra daukie dis-

tira egiten jarraituteko. Eskerrak argi-zaintzaileak dagozan, zeinak argi-ehiztarien aurka burrukatzen diran eta bidaiari tematiak usatzen dituen.

Ha-ta guzti be, unibersoaren bazter urrunetako izarrai be gertatzen jakien lez, amatauz doaz. Argi-zaintzaileak be ezin dabe horren kontra egin, nahiz eta indar guztiak erabili, nahiz eta izpien ñirñirra jagoten egon, gau zein egun. Baina gertatzen da argi honeek badaukiela beste ahalmen berezi bat: ez dira guztiz agortzen. Izan be, eurak ikututako izaki guztietan errastu ezabaezina ixten dabe. Eta argi-zaintzaileengan distira berezi bat emaltzen dabe. Intensidade gehiagaz egiten dabe dir-dir, eta kolore berezi bat daukie definitu ezina dana baina sano ederra dana. Gure argi barriak dira, eta gu euren argi-zaintzaileak.

## ZERTZEAN



RAFA UGALDE

## Ur-laster irenslea

**D**enborak, ur-laster irensleak, dena eroan du, atalka eroan du bizitza; atzamarka mingarri batez erauzten baititu bizitza atalak eta erreka bazterrak.

Hala eroan zuen urruneko itsasora gure haurtzaroa, uraz beheiti eroan zituen gaztaroko urte alaiak eta orduko narrutaldien freskotasuna, zurrunbiloetan ito zituen lehenengo maitasunak ubide bihurriaren txokoetan zaharkitu ziren hainbat amets, lagunaren gudarostea gorpu andana bilakatu du denbora oldeak, eta uraz goiti egindako ahaleginean atzerantz begiratzean, bizitzaren bukaeran, ibai-ahoa, norbera baino ez dago, joandako sasoi, tokiz eta jendez osatutako hutsunez inguratua. Eta mingarri zait denboraren eraso errukigabeak hare-harria suntsitzen duen bezala, bizitzaren marruskaduragatik norberaren atal izan direnak higatzen ikustea, toki haiei orduko bizitasuna ezin ematea, orduko usainez ezin betetzea. Mingarri zait toki eta sasoi haiek bete zituztenak denboraren korrontean itotzen ikustea; bizitza atalen galera, azken baten.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**L**agun batek, itxialdian, berak batez be paisajeak botaten dituala faltan esan eustan. Horregaitik, erosketak egiten urten nintzan baten, erretratu egin neutsan Arratia erreka baxtertxo honeri, argazki eskas baten bitartez, paisajetxo baten oroitzapena eskaintzearren.

Rafa Ugaldek dino bere poeman denporeak, "ur-laster irensleak" legez, dana eroaten dauala, bizitza atalak, tartean, eta bizitzaren amaieran, erreka ondoan norbera baino ez dagoala. Eta oin, guri be mingarri jaku erreka ondoan bakarrik egotea "joandako sasoi, tokiz eta jentez osatutako hutsunez inguratuta".

Bere metaforeari jarraituz, nik gurako neuke, erreka bazter honek, "denporearen korrontean" eroatea itxialdi sasoiak, paisaje faltak, heriotzak bakardadean, triste dagozan umeak...

Ezer ez da betiko. Eta erreka ura legez, denporea aurrera doa, etenbarik.



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa  
LORAZAINTZA  
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
gorosti@gorostiscsl.com

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika  
hagin klinika  
Marina Urigoitia Aldekoa  
Ondarregia  
Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bizkaia  
T. 94 631 50 39  
Kalejatu Zerbaita 101  
R.P.S. 31/06

**J.A. IZQUIERDO**  
PINTURA LANAK  
MOKETA · SINTASOLA · PAPEREA  
Elexalde, 33 D - 1º · 48140 IGORRE (Bizkaia)  
Tel. 94 631 64 62 · 608 664 018

Agurrik  
guztik  
osatu!  
**Troka**  
Lanbideari Agurik!!

## ARRATIA

# Fabriketan hasi dira beharreen

Aprilaren 10eko Errege-dekretuak alarma egoera luzatu eban barriri, aprilaren 26ra arte. Gainera, Pedro Sanchezek beste luzapen bat be iragarri eban, maiatzaren 10era arte behintzat luzatuteko asmoa agertuz. Dekretu honen indarraldian, funtsezkoa ez diran jarduera ekonomiko batzuk lanera bueltau dira, industria eta eraikuntzea, batez be. Arratian, guztietan ez, baina hasi dira lanean fabrika batzuetan.



### Erredakzioa

COVID-19ak kutsatutako kopsurua behera doa eta Erkidegoko osasun zentroak hasi dira normalidadera bueltetan. Holan, COVID-19ak jotako gaixoiak zuzendutako zentro batzuetan, egun batzuetan gaixorik heldu ez jakenez beste gaixoak artatzen bueltau dira. Arratiako osasun zentroetan, gaixoak atendituen jarraitzen dabe, batez be telefonoz. COVID-19ak jotako gaixoak Zornotzara bideratzen dira.

### Beharrera segurtasun neurriak

Funtsezkoak ez diran jarduera ekonomikoetarako bueltau igarri da Arratiako errepideetako trafikoa. Izan be, aurreko asteetan baino kotxe eta kamioi gehiago pasau ziran aprilaren 14ko goizeko lehen orduetan. Garraio publikoa ahalik eta gixien erabilteko eta lanera ahal izan ezker, oinez edo bizikletaz joateko gomendia dago. Kotxe pribaduetan persona bakarra edo, asko jota, bi baino ezin dira joan eta nahiz eta industriari beharrera asko ez ziran bueltau lehenengo egun horretan, trafikoa mobimentu gehiago igarri zan. Arratiako Bizkaibus lineetako autobusen sarratasuna

%50 ingurukoa da asteen. Ordu birik behin dagoz 3917, 3927 eta 3925 lineetako autobusak. Dana dala, sano bidaiari gixien erabilten dabe autobusa alarma egoera ezarri zanetik.

Arratiako hainbat fabrika eta eraikuntzan lanean hasi dira segurtasun neurriak hartuta. "Ez gara danok batera sartu. Guk negozio bi daukaguz, sistemak eta trokelgintza, eta bezeroen errealidadea oso desbardina da. Adibidez, trokelgintzan bezeroak euren proiektuak jarraituteko eskatzen dabil eta sistema arloan barriz, geratuta dago eskaria eta produkzioa" azaldu deutso BEGITU Irtziar Gorrotxategi BATZ S. Kooperatibakoak. Segurtasun neurriak jagokienean, "tenperatura hartzean da sarreretan, sarrerak eskalonatuak dira, hiru txandatan eta bestelako neurri guztiak be hartzean dira" dino Gorrotxategik. Trokelgintzako behargin gehienak itzuli ziran lanera, Sistemak arloan, beharginen %10 inguru eta gaintzakoak telelana egiten dabe.

Industriako lanerako buelta orokorrean, uste baino apalagoa izan zan. Enpresa batzuetan ez ziran hasi beharginen osasuna ezin ebela bermatu eretxita edo bezero barik geratu diralako.

Sindikatuak, osasun segurtasun neurriak beteten dirala jagongo dabela adierazo dabe. Izan be, LABen arabera, "enpresak ez dabil prebenzioari behar adinako garrantzia emoten".

Enpresa batzuetan, osasun krisiak eskatzen dauzan produktuak egiten hasi dira: babes maskarak edo arnagailuetako konponenteak, barbarako. Lekun Plasticos SL zortzi behargin dituan enpresa txikia da, kautxu eta silikona materialetan espezialdua eta arnagailuetako konponenteak egiteko materialak sortzean dabil. Enpresa txiki honek, zentru teknologiko eta multinazionalai material aukerak emon deutsez, homologatuten dabizanak.

### Merkataritza, ostalaritza eta artistak

COVID-19aren aurka hartutako neurriak lanpostu asko galtzea ekarri dau daborduko eta oindino gehiago galtzea ekarriko dau arlo guztietan, baina batez be merkataritza, ostalaritza eta ikuskizunetan behar egiten dabenen artean. Jatekoa saltzean dabenden dendak kenduta, gehienak zarratuta dagoz Arratian, eta horretako askok, komertzio txikerrak izanik, gatz izango dabe aurrera egiteko.

Erosketak komertzio txikietan egiteak lanpostuak mantenduten lagundu ahal daualakoan, Lemoako Udalak barbarako, herriko komertzioetan erosteko deia egin dau.

Urte kaskarra bideratzeko udabarri amaiera eta uda izaten da tabernari eta artista askorentzat; batez be jaiak, herri eta auzoetako jaiak. Zenbat hilabete euki behar izango dabe persiana bajatuta tabernak ez dago jakiterik eta salbatzaile izaten diran jaiak be kolokan dagoz. Momentuz, Igorreko jaiak bagilearen 5etik 14ra izan beharreen, urri bigarrenaren 23tik zemendiaren 1era pasau dira.

EH Bildu Arratiak, sortuko diran ondorio sozial eta ekonomikoak murriztuteko neurriak proposatu deusaz Errota Fundazioari eta horretarako beharrezko baliabideak jartzeko prest agertu da. Arratiako enpresa, komertzio, taberna eta autonomoi arreta zuzena eta tratu pertsonalizaua emotea eskatzen dau. "Bakotxaren interes eta zalantzak argitzeaz gain, administrazio desbardinatuko informazioa, erakundeen dirulaguntzen azalpena, dirulaguntzak lortzeko eskariak osatzeko laguntasuna eta enpresak behar daben edozein argibide emotea proposatu da" azaldu dabe prensa ohar batez.

Zainketa eta etxeko lanetan jarduten dabenen lana funtsezkoa izan arren, egoera prekarioan dagoz. Batzuk lanera joan ezinda geratu dira eta kontratzaileak ez deutsez soldatak ordaintzen. Egoera honetan ezin dabe eze-lango dirulaguntzarik jaso eta diru

sarrera barik geratuten dira. Egoera honetan dagozan etxeko langile bik Arratiako Udalen Mankomunitatera jo dabe laguntza eske.

Espainiako gobernuak be neurri batzuk hartu ditu ondorio sozial gogorrenak leuntzeko, jentek etxea ez galtzea da helburuetako bat. Horretarako, etxebizitzaren hipotekea ordaintzeko moratoriak eta laguntzak dagoz. Horreek eskatu ahal izateko errolda ziurtagiria behar da. Udal webguneetatik egin daiteken arren, tramite hori errazteko, Lemoan errolda ziurtagiria egin ahal izango da [harrera@lema.net](mailto:harrera@lema.net) helbidera dokumentazioa bialduta.

### Umeak kalera urteteko eskaria

Hilabete bat baino gehiago daroagunean etxean, umeen itxialdia arintzeko eskaria zabaltzen dabil sare sozialetan. Konfinamentua ezarri zanetik, galazota dago kalera urtetea. Espainiako Psikologo Kontseilu Nagusiak itxialdia bera arazo dala ume eta nerabeentzat dino eta Espainiako Gobernuari eskatu deutso umeak kalera urtetan ixtea. Gobernuak Pediatría Elkarteari txostena eskatu deutso.

Euskal Herrian, eta Arratia ez da salbuespena, umeen itxialdia arintzeko eskaera gero eta indar handiagoa hartzean dabil sare sozialetan. Maialen Lujanbiok *Akerra ikusi dugu* kantuaen hitzak moldatau dauz aldarri hau egiteko eta egunero 18:00etan, lapiko jotea antolatu dabe Hego Euskal Herri mailan.

## ARRATIA

# Mantxeta eta diseinu barria BEGITU

### Erredakzioa

Mantxeta barria dakar BEGITU, modernoagoa, dotoreagoa eta minimalistagoa. Izan be, hamazortzi urte bete ditu apirlean eta oingo sasoi egokitu gura dau.

Mundua, gizartea eta gure eskualdea asko aldatu dira hama-

zortzi urte honeetan, eta BEGITU, bere esentzia galdu barik, beste sasoi baten sartu da. Horregaitik, agertzen da mantxeta barria ate bat; BEGITU mugak apurtu gura ditualako, harago ikusi: perspektibadun eta ikuspuntu desbardinak kontuan hartzean dauzan kazetaritza egin, hain zuzen be.

Azaleko diseinua be aldatu egin da. Erakargarriagoa eta modernoagoa da oin, etorkizuneko ateak zeharkatuteko.

Diseinua, Estudio Duendeko, Martin Muro Areatzako diseinutzaileak egin dau eta datorren zenbakian be ikusi ahal izango da beste aldaketaxoren bat.

Gugaz harremanetan ipinteko 94 631 73 14 eta 649 979 112

Publizitatea: 649 979 115

**begitu**

[begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

## ARRATIA

**Errentea euskeraz egiteko kanpaina abiatu dabe****Erredakzioa**

UEMAK, Udalak eta hainbat erakunde publikok, errenta autorpena egiteko tramiteak euskeraz egiteko deia egin dabe. Izan be, urtean-urtean gehiago izan arren autorpena euskeraz egiten dabenak, errealidade soziolinguistikotik urrun dagoz datuak eta arnagune diran herrietan be jente askok gaztelaniaz egiten dau.

COVID-19a dala-eta, itxialdiren eraginez, atzerapenak egon

leitekez epeetan. Bizkaian, autorpena egiteko jente askok bankuetara jotzen dau. UEMAK banketxe batzuek hitzarmena dauka eta sukursaletako beharginai errentea euskeraz egiteko kanpainaren barri emongo deutse, prest egon daitezana.

Urtero legez, aurtengo kanpainarako materiala; hau da, kartelak, azalpen orriak, euskarriak eta herriz herriko datuak, udal, erakunde publiko eta euskera alkartearen esku ipini ditu UEMAK.



## IGORRE

**Walter Pack-ek egindako babes pantailak bananduten dabilz ospitale eta osasun zentroetan****Erredakzioa**

Igorren dagoan Walter Pack enpresek eta Ner Groupek, egunean 5.000 babes maskara egiteko gai dan trokel bat diseinatu, prototipau eta fabrikau dau, Espainia osoko osasun zentroai 20.000 unidate emoteko. Euskadi, Gaztela-Leon, Madril, Katalunia, Valentziako Erkidego eta Extremadurako ospitaleetan emon dituela maskarak azaldu deutse begituri enpresatik.

Egoera honen aurrean laguntza emoteko asmoz hasi ziran babes maskarak egiten Igorren. "Ikusten dogu COVID-19 horrek eragindako osasun produktuen gabezia, ikusten dogu zelan osasun langileak ipinten daben jokoan euren osasuna gurea zaintzeko, ikusten doguz sortu diran alkartasun saarak... Hori guztia ikusten dogu, eta horregaz guztiagaz bat egin

besterik ezin dogu egin. Ekimen honegaz, gure esker ona adierazo, eta Ner Groupek eta Walter Pack taldeko enpresa guztiak daukien alde soziala erakutsi gura dogu" dinoe Walter Pack-etik.

**Polikarbonatozko pantailak**

Maskara honeetako biserak plastiko medikoko marko bat daukie. Goma baten bidez finkatzen dira buruan, eta polikarbonatozko pantaila gardena daukie. Pantaila hori desinfektatu daiteke, behin eta barriz erabilteko.



## ARRATIA

**Hamaika Gara sinadura bilketea abiatu dau Gure Eskuk****Erredakzioa**

Hamaika Gara erreferendumaren aldeko sinadura bilketea abian da eta modu digitalean sinatu daiteke [www.hamaikagara.eus](http://www.hamaikagara.eus) webgunean.

Martiaren 11n, Gure Eskuk eta hainbat eragile sozialek Hamaika Gara ekimena aurkeztu eben Donostian. Hamaika Gara "sinadura bilketea masibo bat izango da" antolatzaileen esanetan; etorkizun politikoaz eta gai guztiez erreferendum bidez erabakitzearen alde, erabakitze eskubidea arautzeko helburua daukana. Sinadura bilketeaz gainera, hainbat ekintza eta mobilizazio egozan aurreikusita oingo udabarrirako, bertan behera geratu diranak osasun krisiagaitik. Ekintzok udagoieinean egitea aurreikusten dabe.

**Eragileak**

Aurkezpenean, egitasmoa sustatzen eben eragileak hurrengoak izan ziran: AEK, ANC Euskal Herria, Bilgune Feminista, Demokrazia Bai, Euskal Herrian Euskaraz,

EHNE, Euskal Herria Kirola, Erabakizaleak, Ernai, ESK, Etxalde, Etxerat, Gaur Geroa, Gure Esku, Hiru, Ikastolen Elkarte, Kontseilua, LAB, Lumagorri, Nor, Olatu Koop, Oneka, Sare eta Steilas.



## ARRATIA

**Ikurriñak eta Nafarroako banderak ikusi ziran balkoietan Aberri Egunean**

Urtero legez, Aberri Egunean, aurten apirilak 12, balkoietara ikurriñak atera ebezan arratiaz askok.

**Erredakzioa**

Besteetan ez bezala, itxialdi sasoi honetan, kaleak hutsik egon ziran eta eguneko ekitaldi nagusia balkoietan egin zan. Holan, Euskal Herria Batera plataformek deituta, eguerdiko 12:30ean, balkoietara urten eta minutu bateko isilunea egin zan COVID-19aren biktimen alde eta gero Txoria txori eta Ikusi mendizaleak kantau ziran Euskal Herriko etxeetako hainbat balkoitan. Ekitaldiagaz eta balkoietan ikurriñak eta Nafarroako banderak ipintegaz, komunitate baten parte izatearen sentimentua irudikatu gura izan eben partaideak. Plataformek, herritarrak bialdutako 5.200 argazkigaz egindako mosaikoa be aurkeztu eban Aberri

Egunean.

Alderdiak, adierazpen instituzionalean, egoera latz honetatik urteteko bat egitearen garrantzia azpimarratu eben. EAJ-PNVk, euskal herritarrak zaintzea eta

babestea eta "osasun eta ekonomia aldetik bizi dogun makalaldi honetatik ateratea" dirala bere lehentasunak adierazo eban. EH Bilduk eta Ahal Duguk, Euskal Herria Bateraren ekimenagaz bat eginda, adierazpenean gogora ekarri eben osasun langileak eta ezinbestekoak diran beste arloetakoak egiten daben lana, askotan lan-baldintza prekarioetan.



**BEER & EDARIAK**  
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17  
Eduardo 647 72 96 24

Arkoitz 677 46 40 91  
Goider 666 58 20 06

Puzetta poligona, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



## Maiatzaren Lehena



**Nagore Aizarna**  
**ELA sindikatuko Gizalan**  
**Federazinoko arduraduna**

Maiatzaren Lehena COVID-19aren pandemiak sortu dauan alarma egoera betean ospatzen dogu, salbuespenezko egoera baten, eta horrek askatasunean eta gure herrialdearen autogobernuaren murrizketa garrantzitsua dakar beragaz. Lehenik eta behin, ELAk bere samina erakutsi gura deutse, eta atsekabea,

koronabirusaren krisiaren biktima, senide eta gertukoai.

Ildo beretik, ez doguz ahazten azken hilabeteetan lan istripuen ondorioz hil diran dozenaka langileak. Zaldibarren lurperatutako Joaquin eta Albertoren kasuak laneko prekariedadearen igoera neurribakoaren ondorioen adibide bat baino ez dira.

Aste honeetan, ahulen osasuna eta eskubideak defendidutako enpresak geldiarazoten dituen langileak ikusi doguz; heriotzeari babes-neurri barik aurre egiten deusien egoitzetako langileak bizi daberen drama loratu da, eta, zelan ez, osasun eta gizarte larrialdiari aurre egiten deusien

arlo publikoko langileak bizi daberen drama, euren bizitzak jokoan jarrit. Zaintzaren auzolanean konprometidutako herritartasun solidarioaren adibideak be sortu dira. Guztientzat gure aitortzarik zintzoena.

Aldi berean, larrialdi horrek bizitza eta instantzia kolektiboak suntsitzeko programa gisa azaleratzen dau kapitalismoak. Gure defentsa ahulagoa da hainbat hamarkadatik murrizketen, pribatizazioen eta langile klasearen prekarizazioaren ondoren.

Eusko Jaurlaritzaren ikuskizuna lotsagarria izan da, bere ardurak alde batera itxi ditu. Naturaltasunez hartu ditu salbuespen egoera, eskumenen higadura eta mutilazioa, edo okupazio indarren presentzia gure herrian. Ha-ta guzti be, lerratu egin da, ahalik eta ore-

karik txikiena gorde barik, euskal patronalagaz, funtsezkoak ez diran jardueren jarduerari eusteko eta milaka personaren bizi arriskuan jartzeko helburuagaz. Tristuraz egiaztatzen dogu euren jarkerea, krisi honetan, enpresa askorena baino ardurabakoagoa izan dala.

2008-2013ko krisialditik ikasitakoa praktikara eroan behar dogu, aurreko urteetako gehiegikerien ondorioak herri-klaseen bizkarretan itxi ebezan eta. Ezin jaku gauza bera gertatu, ERTEetatik EREetara pasauko gara; langabeziaren ilarak handituko dira; eta krisi honen kudeaketearen ondorio sozialak bere osotasunean ikusiko doguz, kapitalaren aldeko eta gehiengo sozialaren aurkako kudeaketea izaten jarraitzen dau eta.

Krisi honek argiago erakusten deusku gure gizartea kolektiboan,

arlo publikoan, lanean eta zaintzan oinarritu behar dala. Bizitzak erdigunean egon behar dau gure jardura osoan.

Langileria ez dago bakarrik erronka honetan. Horregaitik, ELAk erabateko lehentasuna emongo deutso sindikatuen erantzuna prestatzeari, eta mobilizazio plurala eta erabat desbardinak diran politika publikoen eskakizunak artikulatzen laguntzeari, gehiengoaren ongizatera eta pobreziaz eta prekarizazioagaz amaitzera bideratuta. Hori da gure konpromisoa.

Horregaitik, langileak izatearen, kolektiboki antolatu, lanaren munduan eta gure gizartean poderea eregitearen harrotasunagaz, Maiatzaren Lehena ospatzen dogu.

Gora Maiatzaren Lehena!

## Maiatzaren Lehena eta COVID-19a



**Agustin Figal**  
**Hego Uribe-Artatirako**  
**LAB sindikatuko idazkaria**

Aurten be, Maiatzaren Lehenean langileok gure oinarritzko eskubideen defentsan agertuko gara. Betiko mobilizazioak burutuko ez badoguz be, koronabirus izeneko pandemiak munduko alde desbardinak izan ezik gu bizi garan ipar mendebalde be hartu daualako eta langileok gure aldarrikapenak haizeratzeko

daukaguzan bitartekoak galarazoten deuskuelako... ezin dogu mobilizaziorik burutu, etxetik atera... gure etxeetan konfinatu gaitue, baina, lantegietara joaten behartzen gaitue, pandemiaren zabalpena dakarrela jakinda be. Egoera honetan osasunak, ez, parkatu, OSASUNAK erdigunea hartu dau (langileontzat batez be), osasuna bizitza duinagaz lotzean dogula ulertuta. Letra mehez, baina, patronalak-Eusko Jaurlaritzak, ekonomia osasuna eta bizitza duinaren gaitetik pasau arazo dabe, pandemia eteteko ezinbestekoa dan jardura industrial zabalik mantendutako ahalegin ikaragarriak egin dituelako langileen osasuna-bizitza arriskuan dagoala jakin arren.

Aurtengo Maiatzaren Lehenean, egoera larri honetan bizitza arriskuan jarrit pandemiaren kontrako burrukan dabiz ezinbestekoak diran sektoreen langileak bereziki goraiatu behar doguzalakoan gagoz. Lan istripuz, koronabirusa dala eta, hil diran osasungintzako langile biak bereziki daukaguz gogoan. Osasungintzako langileak, edate-tuen egoitzetako langileak, etxetxeko langileak, garbiketarako dagozan langileak... egiten daberen lana funtsezkoa dala agerian geratu da, baita zaintza-osasungintzaren alorra bizkar-hazurrean dagoala be. Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak urte askoz esku pribaduetan itxi dabe publikoa, doakoa eta unibersala beharko leuken zerbitzua

(osasungintza, zaintza...) eta ondorioak ikaragarriak izan dira. Beraz, horra-hor Maiatzaren Lehenean lehenengo larri aldarrikapenak.

Seguruenik, balkoietara mugatu beharko da egun horretan egiterik izango dogun ekimena, gaurdanik, ordea, burrukatzen gabiz lantokiz lantoki langileen eskubideak bermatu daitezaten eta horixe da, hain zuzen be, Maiatzaren Lehenean agerian itxiko dauana: langileria burrukan, ezinbestekoa diran jardueretan dabiz langileak osasun prebenziorako neurriak ez diralako beteten, daukiezan giza baliabideak urriak diralako, zerbitzuak, kasu askotan, alor pribaduen eskuetan itxi dituelako administrazioak... ezinbestekoak ez diran jardueretan dabiz langileen kasuan, barriz, osasuna ez dabelako ezelan be lehenesten eta lan osasun neurriak urriak diralako,

etxean egon behar dabelako lehenbailehen pandemia amaitu daiten...

Eta pandemia gaintu ondoren, argi daukagu zein dan patronalaren asmoa: pandemiaren krisiak sortutako ondorioak langileon bizkar gainean itxi gura ditu, eta gu ez gagoz prest! Pandemiaren krisiak agerian itxi dituan egiturazko arazoak konpontzeko ahaleginean, gure indar guztiak jarriko doguz: osasungintza eta zaintza unibersala, doakoa eta publikoa izan daiten, aberastasuna banatu daiten eta gure bizitzaren gainean hartzean diran ebatzi guztiak geuk hartu daiguzala (pandemiaren krisiak agerian itxi dau personok, herriok, langileok ez daukagula erabakitze eskubiderik).

Osasuna, askatasuna eta lan-bizitza duina.

## ARRATIA

### Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea

**Erredakzioa**

Irakurleen konfinamentua, itxialdia, etxealdia... kontetan deusku argazkiak hasi gara jasoten. Umeak, etxean olgetan eta musikea jotzen; nagusiak, ariketa fisikoa egiten, beharrean edo eguzkia hartzean; maskotak, lo; etxetik ikusten diran bistak, leiho eta balkoietako pankartak... gai ugari agertzen dira argazki horretan. Izan be, persona bako-txak bere baliabideakaz egiten deutso aurre egoerari, eta baliabide horreek desbardinak dira

kasu guztietan: bako-txaren gustuak, abileziak, etxeko baldintzak eta aldagai askoren arabera. Heldu diran lehenak argitaratuko doguz laster.

Parte hartzeako, argazkiak alar-ma egoera amaitu arte bialdu daitezke [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbide elektronikora eta momentua gozatuten gehien lagunduten dauan argazkiak saria izango dau itxialdia amaituten danean, etxetik urten eta konpainiaz disfrutatuko. Izan be, saria persona birezko dastatzeko menua Garena jatetxean izango da.



**Mireia Batizek bialdutakoa argazkia.**

Ume honek, eskolako lagunak faltan botata akaso, jostailuzko lagun guztiak atera dabez olgetako.

Eta istorio bat (edo gehiago) kontetan deusku argazkiak. Espaziotik edo, bizilagun barriak etorri dirala

dirudi, lehendik be anitza zan gizarte batera. Eta bizilagun guztiak harrera egitera joan dira. Adibidez.

## BEGITUK 18 URTE

# BEGITU, eteten ez dan sokea

Aurtengo april honetan BEGITU aldizkariak 18 urte bete dauz. Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerazko aldizkaria adinez nagusi bihurtu da, komunikazinoko ezinbesteko erreferentea gure inguruko euskaldun askorentzat.

**Alvaro Rabelli**

Denporea pasetan danean, badira arunt bilakatzen diran gauzak, eguneroko bizimoduan txertatzen dira, ahaztu egiten dogu noztik hona daukaguzan gure artean. Betikotu egiten dira. Horrelango gauza bat BEGITU aldizkariak be pentsau geinke, hamabostean behin gure etxean jasoten dogun euskerazko komunikabideaz. Aspaldiko lagun modukoa da, horixe dago, irakurri egiten dogu, eta, beharbada, irakurri ostein baten batek txoriaren kaiola garbituteko erabiliko dau, edo besteren batek tximiniako sua be biztuteko. Hori da bere birtudetik handiena, erabilgarria da. Bada, gure aspaldiko laguntza honek 18 urte bete dauz april honetan. BEGITU aldizkaria hazi da, daborduko adinez nagusia dan gaztea dogu, eta gazte guztiak lez, erronka barriak ekiteko prest dago.

Nork esango eutsen Arratian

**BEGITU aldizkariari  
aurrerapausuak egitea  
ezinbestekoa jako.  
Aurrera ez egitea  
benetako atzerapausua  
litzateke. Horregaitik,  
pentsetan dogu  
momentua heldu dala  
BEGITU aldizkariari  
bultzadea emoteko**

euskeraz argitaratutako aldizkari baten hutsunea igarten ebela eta, 2001ean BEGITUren egitasmo hau zelan mamindu hausnartzen hasi ziran euskalzaleak 18 urte pasa ondoren proiektu honek sendo segiduko ebala!

Izan be, oindino ahula dan euskerearen uniberso honetan irautea gatxa baino gatxagoa da. Hamazortzi urte horreetan BEGITU moduko beste proiektu asko sortu eta desagertzen ikusi izan dogu. Berez, euskerazko komunikabide batek dana kontra dauka: hizkuntza minoritarioa izatea, hiztunaren ohitura faltea bere hizkuntzan irakurteko, diru aldetik inoz ez errentagarria izatea... BEGITUK, ostera, oin arte behintzat asmau dau hasitako bidean. Ez itzelezko ahalgina egin barik, kazetari, ardurdun, irakurle, banatzaile, bazkide eta kolaboratzaile askoren parte-hartze barik ez zan hau guztiau posible izango. Eurekaz guztiakaz beti zorretan egongo gara.

Bada, esan lez, 2001 urrun horretan euskera bera eta, batez be, euskerazko komunikabideak sustatzeagaitik, hainbat bide aztertu ostein, Zertu Kultur Elkarte eratu zan lehenengo, eta, gero, BEGITU aldizkaria.

Hasikeran BEGITU hilabetekaria bazan be, 2008tik aurrera hamabostero daukagu Arratia, Ubide eta Zeberioko etxeetan. Guztira 22 aldizkari argitaratzen dira urteko (garagarrilean eta abuztuan aldizkari bakarra ateraten da). Aitatu behar da, era berean, 2009ko udatik aldizkariaren webgunea be martxan dagoala. Horrek guztiak egundoko aurrerapena ekarri eban. Hori dala eta, albiste eta gai gehiagori lekua egiteaz gain, irakurleen fidelizazioa be irabazi zan. BEGITUK neurri handi baten zan kultura aldizkaria izateari itxi eta eguneroko informazioa zabaltzeari ekin eutsan. Gaurko talaatik ikusita aldaketa hori berebizikoa izan zan BEGITUren historian.

**Hamabostekaria izatera pasa eta webgunea eukitea mugarrria izan zan**

Aldizkariak gainera, BEGITUK gehigarri bereziak be atera izan ditu lantzean behin: udan jaien barri emoten dabenak, herrietako azoka egunetan (San Isidroetan Zeanurin, Merkatea egunean...), euskerearen nazioarteko egunean, Korrikan... Horrek erakusten deusku zer lotura handia daukan Arratiako jendarteagaz. Aldizkariak berak, informazioa zabaltzeaz batera, bertoko jen-

darrea kohesionatzen lagundu daualaketan gagoz. Gaur egun, bere on, eta zergaitik ez aitortu, bere akatsakaz, ezin dogu Arratia imajinatu BEGITU barik.

**2019an BEGITU aldizkariak ia 140.000 euroko aurrekontua euki eban**

Daturen bat emotearren, BEGITU aldizkariak 7.300 aleko tiradea euki dau 2019. urtean, doban banatzen diran aleak. Horretarako ia 140.000 euroko aurrekontua euki eban. BEGITUren plantillan kazetari bat, zuzendaria eta 10 banatzaile dagoz. Enparauko kolaboratzaileak eta Zertu alarteko batzarra osotzen dabenak boluntarioak eta militanteak dira. Diru-iturri nagusia ez diran arren, aldizkariak dituan 366 harpidedunak, Begitu-lagunak diranak, beren-beregi gogoratu behar doguz, eurak diralako BEGITUren alde ahalegin berezia, ekonomikoa baino gehiago, egiten dabenak. 2020ko honetarako 400 harpidedun euki gura geunkez, horretarako Begitu-lagun barriak egiteko kanpaina martxan daukagu.

Publizidadeak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arratia, Ubide eta Zeberioko udalen dirulaguntzak osotzen dabez BEGITUren gainontzeko diru-iturriak. Euren ahalegina eta laguntzea be esker onez jasoten dogu.

**Andre eta gizonen arteko bardintasunaren alde**

BEGITU Arratia, Ubide eta Zeberioko gertakarien bozeroalea, euskaltzalea, Arratiako euskerearen normalizatzailea, ekologistea, kulturzalea, kirolzalea, eta eretxi pluralekoa. Atzen urteotan andre eta gizonen arteko bardintasunaren alde behar berezia bete dau. Aitatzea merezidu dau, BEGITUK andren eta gizonen aukerabardintasunerako egunero-egunero hartzean dituan neurri eta erispideak; barbarako, aldizkari

## Ez zan posible izango...

**Igor Estankona**

Noz joan ete dira hamazortzi urte? Noz adinez nagusitu jaku haritxo batetik zintzilik jaio zan proiektua, hainbeste jenteren borondateari esker urten zana aurrera?

BEGITUren bidea, oindino ez genkianean BEGITU deituko zanik be, Gau Lorako bilera ia klandestino batzukaz hasi zan, mosto bategaz egoten ginan lau ordu. Gure eskualdeko indar apurrak juntau genduzan

han: satellite bat edo beste, Gannoraz talde euskaltzaleko jentea, geldi egoten ez dakian nor edo nor, frankotiratzaileak. Ez zan posible izango hareek barik.

Eta gogoan daukat gerogarrenean ez nebala barrurik euki Arratiako Udalen Mankomunitateko batzar gelara sartzeako.

Han erabagi behar zan dana.

Eta Iratxe Etxebarriak esan eustan: ordezkariak esan dabe baietz, diruz lagunduko dabela proiektua.

Eta ordura arteko buruko

min guztiak, dudak, paperezko barkuak, danak hasi ziran zentzua hartzean. Egia esan erabagia hartuta egoan: guk egin egingo genduan, erakundeen babesik barik be. Eta erakundeak, halakoetan, ez dabe atzean geratu gura. Aiko han lezino bat betirako.

Ordutik gora-beherak euki doguz, eztabaidak notizia honen edo haren trataerearen inguruan. Garai oparoak. Rollo txarrak. Pasau doguz krisiak, eta pasauko doguz oindino. Joan eta etorri dira kazetariak eta zuzendaritzako kideak, eta Arantza-

zuko udaletxeko kamaran geratzen hasi ginan sasotik gaur egunera arte danetik ikusi dogu.

Sareak ondo eutsi deutso. Osterantzean ez zan posible izango.

Batzuk banaketaren ardurdun dira, besterik ezean beste batzuk idatziz koloretan dogu, lan diplomatiko isilean dabil Zertu Kultur Elkarte, irakurle finak irabazi ditu BEGITUK. Eta BEGITUK irabazi baditu euskereak irabazi ditu. Batzuetan ahaztu egiten jaku baina printzipala horixe da: euskeraz komunikatzea alkarregaz.

Ederra izan da. Merezidu izan dau.

Eta ez zan posible izango Begi-

tu-lagunaren figura ez balego hor. Begitu-lagunarena, izan be, *rara avis* bat da komunikabideen historian. Begitu-lagunok tonto arpegia daukagun aingeru guardako batzuk gara: ordaindu egiten dogu debaldekoa dan aldizkari bat!

Eta ez zan posible izango Iñigo Iruarizagak ez baleutso kudeatzaile postuari konstantzia eta egonkortasun hori emongo urteokaz.

Eta Bea Azpirik be leluka-leluka hainbat urte daroaz erredakzino buru, beti adeitsu, beti profesional.

Ez zan posible izango eurak barik.

Bea eta Iñi, biba zuok.



bakotzeko, alkarrizketatu nagusia hileru tartekatze ahalegina egin da, andrazko-gizonezko oreka bat lortzeko asmoz. Argazkietan, erreportajeetan, eta baita barrietan be genero ikuspuntua jago ten da. 2016ko zezeilaren 26an Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomoa dan Emakunderen Publizitate eta komunikazio ez sexistarako autorregulazinarako kode deontologikoari atxikitu jakon Zertu Kultur Elkarte.

### Denpora honetan Zertu alkarte ez da BEGITU aldizkaria bakarrik egitera mugatu

Gure inguruko kultura bultzatzeko ardura be badauka Zertuk. Horregaitik, BEGITU aldizkaria argitaratzeaz gainera, beste ekintza batzuk be egin izan ditu urte honeetan: bertako idazleen liburua argitaratzea (Gaizka Amondarainen *Ortozik* edota Iker Yurrebasoren *Ametz* eta *Haizea aurpegi*), Arratiako idazleen antologiak argitaratzea, *Peru Tximaluze* alemaniar jatorriko liburua euskerazko bersinoa argitaratzea, Luis Iruarizagaren 25. urtemugako CDan laguntzaile izatea, Arratiako postalen bildumea ateratea, Arratiako Mankomunidadearen 25. urtemugako gehigarri berezia ateratea, Arratiako Musika Eskolagaz alkarlanean, *Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak Musika Eskolaren Historia* liburua argitaratzea edo Mauriziaren gainean be gehigarri berezia ateratea edo beste alkarte batzuk alkarlana bultzatzea... 2013. urtean Arratiera eskuko hiztegia eta *Kontaidazu! Kontaidazu!* ipuin eta kantu bildumea banandu eban alkarteak Begitu-lagunen artean. 2014ean osteran Arratiera eskuko hiztegiaren 2. edizioa eta Alvaro

Rabellik idatzitako *Saguzarren Profhezia* ipuina argitaratu zituan. 2015ean telazko boltsa bat eta BEGITUREN kamisetak atera genduzan. Korrika dala-eta, eta gauez pasatzen zanez besoko fosforitua egin genduan 2017an, "Begitu be" leloagaz. 2018ko abenduan Alvaro Rabelliren *Ustezko fikzioak* liburua aurkeztu genduan Zeanuriko Kultur Etxean, Gabonetako Kultur Astearren barruko ekintzetan. 2019an Arratiako Kalenturak Ipuin Erotikoen Lehiaketaren lehenengo edizioa antolatu eban

### Etorkizun hurreko erronkak

Edozelan be, proiektu guztiai gertatzen jakien lez, BEGITU aldizkariari aurrerapausuak egitea ezinbestekoa jako. Aurrera ez egitea benetako atzerapausua litzateke. Horregaitik, pentsetan dogu momentua heldu dala BEGITU aldizkariari bultzadea emoteko.

Zein norabidetan egin gura dogu aurrerapausu hori? Bada, labur esanda, komunikazinarako teknologia barriak eskaintzen deuskuezan tresnak, eta horreek ekarritako abantailak, behar ditu BEGITUK. Beste modu batera esanda, betiko paperezko BEGITUREN ondoan sareko BEGITU eraginkor eta indartsu bat behar dogu. Nolan, BEGITUREN webgunea bultzatzeaz gain, BEGITU sare sozialetan be egon daiten gura dogu.

Ze errazoi daukagu horretarako? Lehena aurretiaz aurreratu dogu. Badira 18 urte BEGITU sortu zala, eta bere oin arteko ibilbidean hainbat aldaketa bizi izan ditu, garatuz joan da. Baina, garapen hori barik, BEGITU moduko proiektuak gelditzeko arriskua daukie. Eten barik jendartearen unean uneko beharizanetara moldatzen jakin behar dabe. Etorkizunera egokitu behar dogu.

Hain zuzen be, bigarren errazoi atzen hamarkadetan teknologiaren aurrerakuntzeak ekarritako ondorioetan dogu. Teknologia komunikazino tresna barriak eskaini ezeze, komunikazino bera ulertzeko modua be aldatu dau. Une honetan pentsaezina da

komunikabide batentzat sarean ez egotea. Horeri esker komunikazino arin transmititzen da, aldi berean euskarri bat baino gehiago erabiltea ahalbidetzen dau (papera, bideoak, blogak, sareko txioak...) eta hedabidearen eta erabiltzaileen arteko alkarre-

tzea bultzatzen dau; hau da, komunikazino parte-hartzailea sustatzen dau, non edonork emon leiken informazino, edonondik gainera. Komunikatzeko era hau belaunaldi gazteak atoa bereganatu dabe. Horrentzat be lan egin behar dau BEGITUK.



## Autokontsumo Fotovoltaikoa

AURREKONTUA ESKATU

Eguzki panelak jarri eta aurreztu %50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik egindako proiektuak bisitatzeko aukera

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA  
Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

944 567 368  
www.ekoleds.com  
Bedia | Bizkaia  
info@ekoleds.com

**ekoLEDs**  
INST. ELECTRICAS  
600 565 079



## ZURE ZERBITZURA

Avia guztira 192 gasolindegia  
Avia Adenor 35 gasolindegia

ADENOR Igorre  
www.aviaenergias.es

Explanada Punta Ceballos z/g  
48508 Zierbena (Bizkaia)  
Tel. +34 944 130 159

Banaketa  
Berogailuetarako  
gasolio zerbitzua

## GURE BIHOTZA

Operazio zentroa  
Bilboko Portu Autongmoan

**AVIA**

**MENDIA**

# Alex Txikon: "Ganzabal Mendi Taldeari esker nago oin nagoan lekuan"

Alex Txikon, eskalatzaile lemoztarrak espedizino bateri ekiten deusan bakotxean, hari begira ipinten dira hedabide guztiak. Izan be, bere erronkak desbardinak izaten dira, eta ezinezkoa edo ia ezinezkoa egiten saiatuten dan arren, bere helbururik garrantzitsuena sokakide guztiak onik itzultzea izaten da. Sokakideak baino gehiago sokalagunak dirala dino. Txikonen lagunak be badira Euskal Herriko beste hainbat eskalatzaile "amorratu" be. Eurekaz dituan hartu-emonen barri egiten dau berba alkarrizketa honetan.

Mendizaletasuna ogibide bihurtu eban Txikonek oin dala sei bat urte. Eta COVID-19a dala-eta, ezarritako itxialdian mendira joan ezin bada be, ez jako lanik falta. Izan be, mendirik altuenetan eta natura gordinen dan leketan bizi izandakoa kontetako liburu eta dokumentalak dabil prestetan.

**Erredakzioa****Zelan eta noz hasi zan zure mendizaletasuna?**

Ganzabal mendi taldeari esker hasi jatan zaletasuna, duda eta zalantza barik; Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako urtekeretan. Gaur egun be jarraituten dodaz antolatuten dauzan jarduerak. Eurei esker, eta batez be persona gitxi batzuei esker, nago oin nagoan lekuan.

**Azaldu zure ibilbidea mendizale moduan. Zeintzuk dira zuretzat egin dozuzan espediziorik inportanteenak?**

Niretzat danak dira inportanteak. Batzuek aitaturaren, aitaturko neuke 2005ean egin neban lehenengo espedizino *Al filo de lo imposible* saiorako izan zana. Gero be aitaturko neukez Edurne Pasabanegaz egindakoak... Baina esandako moduan, niretzat espedizino guztiak dira garrantzitsuak.

**Everesteko espedizinoan nortzuk izan ziran zure sokakideak?**

Everesten egon ginan, Oscar Cardo Albacetekoa, Jonatan Garcia Barakaldokoa eta geure lagun handiak diran eskalatzaile nepaliarrak: Lama, Peshang eta Norbu. Atzenengo hau, oin dala 3 urte, Everesteko espedizinoan be nigaz ibili zan eta ordutik sano hartu-emon handia daukagu. Honeek dira nire sokalagun eta sokakideak. Batez be sokalagunak dira eta gero sokakideak, be bai.

Beste mendizaleakaz be badaukadaz hartu-emonak. Askotan egiten dogu berba gure artean. Datorren astean adibidez, Edurne Pasabanegaz egingo dogu konexino zuzena. Oso harreman ona daukagu Euskal Herriko eskalatzaile amorratuok. Azken finean ez gara hainbeste. Beste gauza bat da mendian pasean ibiltzen diran mendizaleak; horreek bai asko dira. Baina fanatismo puntu batez giti batzuk garala esan-



go neuke, eta gure artean, harreman oso ona eta estua daukagu.

Mendizaletasuna betiko da. Ni gero eta gusturago ibiltzen naz mendian. Nire pasino da eta pasinoagaz urtetzen naz beti.

Mendiak asko emoten deusta, baina batez be orekatu egiten nau eta egunerokotasunean aurrera jarraituteko atxakia bat da.

**Pasinoak bakarrik ez, mendizale profesionala zara, ezta?**

Bai. Bizimodua mendizaletasunetik ateraten dot eta lanbide bihurtu dot. Atzenengo 6-7 urteetan bihurtu dot ogibide neure mendizaletasuna, eta gustura nago. Ebatzi hori lehenago hartu behar izan nebalan pentsetan dot, beranduegi heldu zala: askoz be lehenago itxi behar nebazan eraikuntzako lana eta beste lanak, eta nire denporea %100ean dedikatu mendira, eskaladara... maite dodan horri, hazten lagunduten deustan horri. Ez bakarrik arlo

"Ni oin idazten nabil, gauzak aurreratuten; lan asko daukat etxean, atzeratutako lan piloa eta hori aurrera ateraten nabil"

ekonomikoan urteak behar izango doguz.

Ni oin idazten nabil, gauzak aurreratuten; lan asko daukat etxean, atzeratutako lan piloa eta hori aurrera ateraten nabil.

**Atzenengo espedizinoan aurkeztu zenuenean, liburu bat aterako zenuela esan zenuen. Noz egongo da prest?**

Bai argitaratu da. Sua edizioak en eskutik, Unai Ormaetxeak idatzita, *Mundu bat motxilan*. Alex Txikonen meditazioak dauka izenburua. Nire asmoa, hurrengo urte bietan, aurtengo ikasturtean baita, emonaldiak emotea da Unai Ormaetxeagaz batera. Konbinaketa polita egin dogu Unai eta biok. Berak zuzendu dau lana literaturaren aldetik eta nik kirolaren aldetik. Talde polita osotu dogu eta datozan urteotan, hori aurkeztutea da asmoa.

Gero badaukadaz beste gauza batzuk be, beste dokumental eta liburuak buruan, eta oin, lan horretan nabil.

Momentu honetan, plan eta ilusiorik handiena osasun krisi hau lehenbailehen amaitutea da, sikeran etxetik urten ahal izateko eta gure egunerokotasunagaz jarraituteko. Eta ea pandemia honetatik onurak ateraten doguzan gizarte moduan, hemendik aurrera gauzak hobeto egiteko.



personalean, besteai begirakoan be lagunduten deusta eta.

**Espedizino tartetean, beste kirol batzuk be egiten dozuz. Zeintzuk dira gehien gustetan jatzuzanak?**

Txikitan gustetan jatazan futbola, eskupelotea... baina gaur egun danetik. Gehien-gehiena gustetan jata naturan egotea, baina oso kirol zalea naz eta asko gustetan jata kirol desbardinak jarraitutea eta praktiketea be bai.

**Naturan ezin ibili oin ordea. Etxean konfinauta gagoz dano eta. COVID-19ak zelan aldatu dau zure bizimodua?**

COVID-19a dala-eta, krisi ekonomiko eta etorriko da, baina oin ez dogu ahaztu behar jentea hiltzen dagoala, eta hau ez dala txantxa bat. Nire ustez luzerako da. Inork ez dau argi esaten baina nik esango neuke, osasun arloari jagoak, urtebete pasauko dala gauzak bere onera etorteko. Arlo

## PELOTEA

# Dimako Jaietako Pelota Txapelketea antolatuten dabil Txumuluxueta

Urtero legez, aurten be, Dimeko Jaietako Pelota

Txapelketea antolatuten dabiz Txumuluxueta alkartekoak.

### Erredakzinoa

COVID-19aren aurkako neurriak galazo ezean, finala bagilaren 26an jokatu da.

Itxialdia amaitu bezain laster, taldeak, gurutzaketak eta egutegiak heldu arazo eta partiduak itxialdia amaitu eta aste berean jokatu hastea gura dabe antolatzaileak. "Multzoetako partiduak bagilaren 14rako amaituta egon behar dira, bagilaren 19an finalurrekoak jokatu, eta Dimako jaietako barikuan, bagilak 26, finala jokatu ahal izateko".

Partiduen egutegiak zein astegoienetan jokatu beharko litzatekeen zehaztuko dau antolakuntzak; eguna eta ordua barriz, bikoteak adostu beharko dabe. Partidu bakotxa jokatu eta gero, emaitza

antolatzailei pasauko deutsee, atzen sailkapena egin dagien. Partidu guztiak 18 tantora jokatuko dira eta lehen sarea txanpon bategaz ebatziko da.

### Federauak eta federauta ez dagozanak

Txapelketan maila bi egongo dira. lehenengo mailan, bikoteko bat federauta egon behar da eta bigarren mailan federauak ezin izango dabe parte hartu. Lehenengo maila pelota Senior goxuagaz jokatuko da eta bigarren maila pelota Jubenil goxuagaz.

Parte hartu ahal izateko, bikoteko bat behintzat dimoztarra izan beharko da eta izena apirilaren 17a baino lehenago emon behar da 688 640 221 telefonoan edo [txumuluxueta.pe@gmail.com](mailto:txumuluxueta.pe@gmail.com) helbidean.



## EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIARI EZ



**KRISI EGOERA HONETAN, INDARKERIA MATXISTAREN  
BIKTIMA DIREN ANDRANTZAKO ZERBITZUAK:**

**GIZARTE ZERBITZUAK**

**ARRETA PSIKOLOGIKOA**



## DEITU, LAGUNDUKO ZAITUGU

# 94 631 17 17 // 688 62 73 93

**ORDUTEGIA 8:00 - 15:00**

**\*Arreta telefonikoa emango da**

Larrialdiak -112-  
-900 840 111-

24 ordukoa eta anonimoa



# ALKIZABAL

## ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
[alkizabal@alkizabal.net](mailto:alkizabal@alkizabal.net)

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)



Basoak garbitzeko makineria

## ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA

## KULTUREA

# Leire Ajuria: "Inoz egin dodan lanik politena egin neban Senegalen"

Leire Ajuria optikaria Ubiden bizi da eta Gasteizen egiten dau behar, batez be, ukipen lenteakaz eta lenteotako eta betaurretako graduazinoak egiten. Terrasan (Bartzelona) eta Madrilen egin eban diplomatura eta oin dala urte pare bat gradu barria Valladolid-eko unibersidadean.

Igazko zemendian Senegalen egon zan Visio Sense Fronteres (VSF) Gobernu Kanpoko Erakundeko talde bategaz.

## Erredakzinoa

### Senegalen egon zara VSF Gobernu Kanpoko Erakundeko (GKE). Zelan hasi zinan erakunde horregaz lan egiten?

Diman ikastolako lagun bat daukat, Susana Villanueva, optikaria da bera eta Bilboko optika baten egiten dau behar. Susana VSFko kidea da eta hainbat kanpainatan egin dau behar. Berak bultzatu ninduan GBE honetan parte hartzera.

VSF1999ean sortu zan Alacanten. [www.visiosensefronteres.org](http://www.visiosensefronteres.org) webgunean ikusi daitezke egin dituan proiektuak hainbat herrialdetan; Burkina Fason, Camerunen, Kenian, Namibian, Mauritania, Indian...

VDFn helburu garrantzitsuena kataratak eta errefrakzino arazoak eragindako ikusmen galerea saihestea da. Munduan 36 miloe persona dagoz itsu eta beharrezkoak diran baliabideak erabili ezker, kopuru horreen erdiak aurreikusio edo zuzendu daitezke.

Jenteak erabilten ez dituan betaurreko zaharrak optikara ekarten ditu. Betaurrekoak maleta haundi batzuetan sartu eta eroaten doguz beste herrialde batzuetara. Optikako makina batzuk be zatika eroaten doguz maletetan.

### Noz joan zinan Senegalera eta zer egin zenuan bertan?

2019ko zemendiaren 21etik 30era, egon ginan Senegalen. VSFko 10 persona joan ginan guztira: optikariak, gizarte langileak, informatikariak eta talde zuzendari bat.

Dakarrera heldu eta gure maleta guztiakaz Sam-Sam auzunera abiatu ginan. Dakarreko auzune honetan jente asko bizi da kaleari, eta pobrezia da nagusi.

Txabola guztien erdian misinolari bat bizi da, Regina Casado, Leongoa. Reginak 20 urte baino gehiago daroaz Sam-Sameko jenteari lagunduten. Neska gazteentzako sukaldaritza eskola bat eregi dau eta eskolan kooperanteentzako logelak dagoz. Medikuz eta erizainez osotutako GKE bat da "Toubah" deritxana.

Honeek mediku zentru bat



eregi dabe Reginaren eskolatik hur. Horrezaz gainera, meskita txiki bat eta eskola zahar bat be badaukie auzokoak.

Sam-Sameko mediku zentrua hurreraten diran personai ikusmen frogak egiten jakiez eta betaurrekoak behar baditue guk eroandakoen artean behar daben graduazinoak egokitzen jakie. Eguzki betaurreko asko be (neutroak, graduazino bakoak) egokitzen dira, sano kaltegarria dalako Senegaleko eguzkia begietarako. Ekuadorretik hur dagoan herrialdea da Senegal eta jenteak eguzkitan pasetan dau egun osoa ezelangotako barik.

Optikari kanpaina honetan, kataratak dituen persona guztiak sailkatzen dira. Gero bigarren kanpaina bat egiten da eta horretan, VSFko oftalmologo talde batek katarata ebakuntzak egiten ditu Sam-Sameko osasun zentruan, GKEk bildutako diruagaz. Begi barruko lenteak, laserrak eta beharrezko diran materialak ordaintzeko erabilten da dirua. "Apadrina ojos" deritxo kanpainak. Ebakuntza bakotxa kudeagututeko 80.000 euro behar izaten dira.

### Ze balorazino egiten dozu Senegalen egindako lana dalata?

Oso esperientzia aberasgarria izan da niretzat, hango jenteak benetan eskertzen dau egindako lana. Eta oso harreman polita sortzean da bai umeakaz, bai helduakaz. Sano jente jatorra da. Lantalde barruan be lotura berezia sortzean da. Guztion artean esperientziak partekatzen doguz eta holan gauza barri asko ikasten doguz.

Bidairen bigarren astean Dakarretik Sanghe herrialdera abiatu ginan. Taxi zahar batzuetan sartu genduzan maleta eta traste guztiak. Ordu pare bateko bidaia izan arren aldaketa izugarria da. Dakar Senegaleko kostaldean kokatutako uri handi bat da eta Sanghe barrukaldeko nekazal herri txiki bat. Abeltzaintza eta nekazaritza da bertako bizimodua.

Baina Afrikan, ura da arazoa. Sor Hortensiak, 80 urteko monja batek 200 ur pozu baino gehiago egin dauz han, "Hortensia la pocera" deitzean deusie. Manos Unidas-en laguntzeagaz umeentzako eskola bat eta mediku zentru bat be eregi dabe Sanghen.

Bertara joan ginan umeen ikusmena neurtzera. Eskolako gela guztiak begiratu genduzan andereñoaren laguntzeagaz. Sekula egin dodan lanik politena iruditu jatan!

Herriko persona helduai be egin geuntsen ikusmen neurketak.

Oso leku baketsua da Sanghe. Eguzkia sartzean danean, baobab-en artean animalien oihauek entzuten dira. Esperientzia hau guztiz hunkigarria iruditu jatan.

### Itxialdiak eragin ahal deustoz ikusmenari?

Koronabirusa dala-eta, pantailearen aurrean ordu pilo emoten dabenak ikusmen arazoak euki daikiez. Horregaitik komeningarria da atsedean hartzea. Adibidez, 20 minuturo, 20 segundoko atsedena egitea, 20 metroko distantziara begiratu (gogoratu 20-20-20).

Distantzia egoki bat mantentzeko behar da liburu bat irakurtzen danean edo ordenadorea erabilten danean. Aldi berean pantailearen altuera ondo egokitu behar da. Argiak be garrantzia handia dauka. Argi naturala (eguzkia) da onena eta argi iturriak ez dau itzalik sortu behar egiten dan lanaren gainean.

## EUSKARALDIA

## Etxealditik Euskaraldira



## Erredakzinoa

Aurtengo Euskaraldian parte hartzeako entitateak (hau da, erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak, alkarteak eta abar) ariguneak antolatuten dabiz. Ariguneak, momentu guztietan euskeraz egitea bermatzen dabe, entitate barruan eta herritarrek daukan hartu-emonetan. Talde honeetako kideak ahobizi eta belarriprest moduan jardungo dabe Euskaraldiak iraungo dauzan 15 egunetan.

COVID-19ak danean eragin dau, baita Euskaraldian be. Antolatzaileak, "bizi dogun egoera, etxealdi egoera, Euskaraldirako entrenamentu moduan baliatu"



gura dabe. Etxekoakaz eta internet bidez daukaguzan alkarrizketetan erabilten dogun hizkuntzaren gaineko hausnarketea egiteko asmoa dauka Etxealditik Euskaraldira ekimenak. "Etxealdia beraz, beroketa ariketak egiteko eta jokaldiak entseatzeko baliatuko dogu, entrenamentuetan egiten dan moduan. Gero zemendiaren 20tik abenduaren 4ra jokatu dogun partidura sasoi betean helzteako, eta partidu hori konfiantzaz eta segurtasun handiagoagaz jokatu ahal izateko" dinoe.

Ekimen hau apirilaren 20tik maiatzaren 3ra arte izango da eta hizkuntza ohiturak aldatzeko hausnarketea bultzatzea dauka helburu.



## KULTUREA

# Etxean egoteko euskerazko baliabideen zerrendea

### Erredakzioa

Euskerazko hainbat webgune, banku eta kanaletik jasota, ume eta nagusientzako euskerazko debaldeko baliabideak batu ditu UEMAK ([www.uema.eus](http://www.uema.eus)) zerrenda baten, etxean egon beharra arinago egiteko.

Umeentzako jolasak eta eskulanak, filmak, marrazki bizidunak eta telesailak eta ipuinak eta abestiak eskaintzen dituen 22 esteka dagoz jasota. Helduentzat,

beste 25. Hor, multimedia kanal eta podcastak, filmak eta telesailak, bideojokoak, literatura, kultur sorkuntza, zientzia, musika, bertsolaritza eta euskalkiak, sukaldaritza eta hainbat monografiko dagoz.

Zerrendan sartuta ez egon arren, *Bizkaie.biz* webgunean be, askotariko gaiak, kultura, zinema, euskera, bertsolaritza, bidaia kronikak eta bestelakoak mendebaldeko euskalkian eskaintzen dira.



## KULTUREA

# HABEK atzeratu egin ditu euskera mailak egiazatzeko azterketak

### Erredakzioa

COVID-19 birusak eragindako osasun arloko krisi-egoera kudeatzeko, Euskadiko Babes Zibileko Planaren eta martiaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz, HABEK

atzeratu egin ditu euskera mailak egiazatzeko prozedura guztietan: bai ebaluazio jarraituaren hariko egiazatzegintzan, bai azterketa deialdietan. Atzerako ebatzi honen indarraldia amaitutakoan, HABEK egutegi barri bat finkatuko dau.

## DUNBA

# Ni etxean geratuko naiz

### Zeberriko eskolako ikasleak

Koronabirusa, itxuregaitik dauka izen hori, birus familia bat da. Orokorrean animalietan dagoz, baina batzuetan personetara pasetan dira. Birus honek, giza gorputzean orokorrean arnas bideko gaixotasunak eragiten dabez.

Koronabirusaren izen zientifikoa COVID-19 da. Gripe arruntaren antzeko sintomak ditu, baina oso kutsakorra da. Personen arteko transmisio formarik ohikoena, aire bidezkoa da, berba egiten danean, ez tul egiten edo arnastean igorriten diran tantakada txikien bitartez.

Sintomarik ohikoenak honako honek dira: eztula, eztarriko mina, sukarra, nekea eta arnas faltearen sensazioa.

Ez dago tratamendu zehatzik. 2019ko abenduaren 1ean koronabirusaren lehenengo kasua agertu zan Txinako Hubei probintziako Wuhan urian. 4 hilabete igaro dira ordurik hona eta gaur egun mundu osoan zehar zabaldu da. Izan be, horrexegaitik deklarau dabe pandemia OMEkoak. Oso gitxi dira oindino kutsatutako jentetik ez daukien herrialdeak. 197 herrialde dagoz gaixotasunaren eraginpean. 600.000 kasutik gora dagoz konfirmata, 30.000 persona hil dira eta 130.000 osatu egin dira oraingo. Ha-ta guzti be, egunean-egunean zifrak gora doaz.

### Etxean egon beharra

Eskolak itxi ebezanetik eta alarma egoeran gagozanetik etxean geratu beharra daukagu.

## UEU

# Udako Ikastaroen eskaintza mantenduten dau UEUK

Larrialdi egoera dala-eta, UEUK, (Udako Euskal Unibertsitatea), martia eta aprileko aurrez aurreko saioak eten egin dauz, baina Udako Ikastaroen antolaketea, data eta lekua, eta eskaintza mantendutea ebatzi dau.

### Erredakzioa

Udabarriko ikastaroetako datak aldatu egin behar izan dira eta ikastaroak maiatza-bagilera pasau dabez. *Material didaktikoaren sorkuntza tresna askeak erabiliz* online ikastaroa maiatzaren 6tik, bagilaren 3ra izango da. *Emozio-tegia* maiatzaren 9tik 16ra dago aurreikusita Iruñean eta *Sormena praktika* lantzen barriz, maiatzaren 16tik 23ra. COVID-19ak bertan behera ixten ez badauz, Eibarren izango dira *Gaitasun zientifiko-teknologikoak (STEM) LHn eta DBHn lantzeko proiektuak*, maiatzaren 6, 13 eta 20an; *Emozioen kudeaketa sakona* maiatzaren 30ean eta *Bizidun bila I. Non daude eta nola ikus ditzakegu? Odonatu, ximeleta, anfibio eta narrastiak*. Atzenengo honen data zehaztu barik dago.

Gasteizen aurreikusita dagoz, *Soziolinguistika Hiztegi Txikia II: hizkuntzaren normalizazioa, lau gako eta zortzi azterketa* maiatza-

tzaren 5 eta bagilaren 2rako eta *Hitz Adina Mintzo: hizkuntza gutxiak ezagutzeko zikloa* maiatzaren 27rako.

Ikastaro honeetan izen emotea zabalik dago.

### Udako ikastaroak

Hasikera ekitaldia Bilbon dago aurreikusita. Iruñean, bagilaren 22tik 24ra, 7 ikastaro dagoz programata: *Orreagatik (778) Trantsiziora (1975-1982): Nafarroaren historia, memoria eta kontakizunak; Udako Bertso Eskola; Euskal Herria Dekolonialitate; Etxebizitza Kooperatiboak; Visual Thinking ikas-irakasteko ikusgarria; Online edukiak kudeatzerakoan kontuan hartzeko gako juridikoak eta Hezkuntzarako bideo egokiak.*

Bagilaren 25etik, garagarriaren 10erako ikastaroak eta Matematikari Euskaldunen IV. Topaketea dabiz prestatzen Eibarren. Baita, Informazio eta Dokumentazio Kudeatzaileen VI. Bilkura be.



*Kultur Kritika Feminista: leiho berriak, etorkizunerako urrats; Larrialdi klimatiko 2020 urtean. Hondakinen % 50a birziklatu behar. Erraustu, konpostatu hor dilema; Euskal mito-bilketa: hitza, irudimena, herria; Software libre ikastetxean: Luberi sistemaren instalazioa eta administrazioa; BERRIA transmedia: kazetaritzaren gaur egungo praktikak; Zer dakigu, jakin nahi dugu eta jakin dezakegu euskararen historiaurreaz?; Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza DBHko Natur Zientzietan: ingurumenari loturiko proiektuen diseinua; Azterketa sozialerako lau mailak eta DBHko EKI ezagutzeko oinarriak dira ikastaroak.*

Baionan garagarriaren 6tik 8rako Hizkuntzalaritza klinikoko I. jardunaldia eta lau ikastaro antolatuten dabiz. Honek dira ikastaroak: *Euskaraz beti eta hobeki; Euskara gaitasuna lantzeko taillerra; Gau Beltza antolatzeko taillerra eta Euskal kantu ondarearen transmisioa.* Gainera, Jakin jardunaldia izango da Usurbilen, *Orainaldi distopikoa. Birusak, panikoa eta bizitza landuteko* eta Wikimedia editatoia egin gura dabe Donostian.

Ikastaroen zerrenda hau behin behinekoa da eta aldaketak egon daitezke. Matrikulazioa maiatzaren 11n hasiko da eta ikastaroa hasi baino astebete lehenago zarratuko da.

Esperientzia hau apur bat aspergarria da, etxean gelditu behar zara eta egunero gauza bardinak egin.

Nik, etxean, klaseak skypeetik hartuten dodaz. Eta ondo dago baina ez da klasean egotea lakoa ez da ondo entzuten ezta ikusten be... baina gitxienez zeozer egiten dogu.

Denporea pasetako, telebista ikusi, bideojokoetan jolastu, lagunakaz bideodeien bidez berba egin... janaria prestatzen lagundu,

kirol apur bat egin... eta ahal dauanak eguraldi ona danean lorategira atera kartetan jolasten, edo ortura joan eta ha zaindu.

Baina azkenean danagaz asperuten gara. Eta seguruenik danok burua bueltaka aterako gara etxetik.

Gainera batzuen etxeetan aituten eta amamen ardura daukagu, eta eurak ez kutsatzeko maskarilla erabilten dogu zeozer esateko edo emoteko.

Baina egoera honek bere alde



positiboa be badauka, holan familiagaz egoteko denporea luzeagoa da eta gure gustuko gauzak egiteko aukera emoten deusku, pelikula piloa ikusteko, esaterako.

Egun guztia etxean sartuta, lagunik ezin ikusi eta ezin eguraldi ona aprobetxau. Oso egoera arraroa da eta ez dogu bape atsegin.

Egoera hau laster amaitutea eta normaltasunera bueltetea espero dogu.

Lagunakaz egotea gurako neuke, berba, karran, harrapaketan, pelotan... falta dodaz horretan ibilteko.



**AGENDEA**

**APRILAK 16  
ARRATIA**

AEK-ko Berbalagun proiektuak antolatutako *Zer moduz etxealdia?* Kronika Lehiaketea martxan dago. Argazki, bideoz, idatziz, bertsoz edo marrazkiz zure berrogeialdiaren kronika egin eta [arratia\\_berba@gmail.com](mailto:arratia_berba@gmail.com) helbidera edo 662 199 033 telefono zenbakira bialdu. Azken eguna apirilaren

20a. Oenak saritu egingo dabez.

Atzen eguna. Konfinamentu aldiaren, lagun eta familien bisita barik dagozan presoentzako alkartasun argazkiak atera eta [arratieko.ernai@gmail.com](mailto:arratieko.ernai@gmail.com) helbidera bidali daitezke. Hilaren 17an, Preso Politikoen Nazioarteko Egunean alkartasun bideoa zabalduko dabe.

BEGITUk antolatutako Etxean Hobeto Argazki Lehiaketea martxan. Argazkiak, bost gehienez, alarma egoera amaitu arte bialdu [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Momentuaz gozatzen gehien lagunduten dauan argazkiak saria izango dau: Garena jatekxan persona birezako dastatze menua.

Gernikako KZguneko 94 403 33 58 telefonora deitu, edozein zalanza argitu edo zeozer konsultau daiteke.

**AREATZA**

Udal zerbitzua erosketak etxex etxe banatzeko. Udaletxera (646 567 836) 09:00-13:00 artean deitu behar da, eta herriko dendetan egin gura diran erosketak azaldu. Eskatutakoa hurrengo egunean jasoko da etxean, goizean zehar. Zerbitzua dobakoa da eta erosketok denda bakotxan ordaindu behar dira, aurrerago. Arrisku taldeko personai zuzendutako zerbitzua da.

**BEDIA**

eLiburutegia erabilteko [liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus](mailto:liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus) helbidean sarbide gakoa emongo deusie eskatzen dauanari egoera normalizau arte. eLiburutegian persona bakotxak hilean lau liburu irakurteko eta astero film bi ikusteko aukera dauka. Mailegvan hartu daitezke liburuak, eskaera posta elektronikoz eginda [liburutegia@bedia.biz](mailto:liburutegia@bedia.biz) helbidean.

Itxialdi egoerak eragindako sentimendu eta emozinoak partekatze lan artistikoak (kontakizunak, gutunak, marrazkiak...) bialdu daitezke [liburutegia@bedia.biz](mailto:liburutegia@bedia.biz) helbidera.

Itxialdia amaitutakoan, lanokaz erakusketea antolatuko da.

Ludotekeak astelehenero etxean egiteko lau ekintza proposatzen ditu [www.Bedia.biz](http://www.Bedia.biz) webgunean: jolasa, eskulana eta sukaldaritza errezeta bi, bata umeak egiteko eta bestea nagusientzat. Jardueren argazkiak [ludotekabedia@gmail.com](mailto:ludotekabedia@gmail.com) helbidera bialdu.

**DIMA**

Udalak herritarren zaintza bermatzeko herritar sarea osatu dau adineko zein patologia desbardinak daukiezan personai erantzuteko. Laguntzeko prest bazagoz edo laguntzea behar badozu deitu 94 631 57 25 telefonora 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Ordutegi horretatik kanpo 665 710 637 telefonoa erabili.

Hilaren 17ra arte, Gazte Abentura, Udaleku Irekietan eta Udaleku Itxietan izena emoteko epea. Gazte Abentura (astea kanpoan) 2002-2007 urteen bitartean jaiotakoak, bagilaren 29tik garagarriaren 3ra izango da. Udaleku Irekiak (Diman goizez) 2007-2015 urteen bitartean jaiotakoak, garagarriaren 6tik 10era izango dira. Udaleku Itxietan (astea kanpoan) 2007-2015 urteen bitartean jaiotakoak, garagarriaren 13tik 16ra izango dira. Dimastenen antolatuta. Izena [dimedimesten@gmail.com](mailto:dimedimesten@gmail.com) helbidean emon behar da.

Aprilaren 17ra arte emon daiteke izena Dimako Jaietako Pelota Txapelketan parte hartzeako 688 640 221 telefonon edo [tumuluxueta.pe@gmail.com](mailto:tumuluxueta.pe@gmail.com) helbidean. Partiduak itxialdia amaitutakoan hasiko lirake eta multzoetako partiduak bagilaren 14rako amaituta egon. Bagilaren 19an izango litzateke finalurrekoak eta 26an finala.

**IGORRE**

Egoera zaurgarrian dagozan herritarrek laguntzeko sarea osatu dabe Igorreko

Gazteak, kuadrillak eta Udalak. Sarean boluntario beharretan parte hartu gura izan ezker idatzi [auzolana.igorre@gmail.com](mailto:auzolana.igorre@gmail.com) helbide elektronikora. Laguntzea behar izan ezker deitu 655 363 026 telefonora.

Aprilaren 23ra arte, Kiñu Gaztearen 6. urteurrena ospatuteko bideoklipen parte hartzeako, Kuraia taldearen *Piztu da piztia* kantuaren 20 segundoko bideoklipa horizontalean grabau eta WhatsApp bidez 676 247 784 edo [eizukinu@gmail.com](mailto:eizukinu@gmail.com) helbidera bialdu. Bideokliparen estreinaldia hilaren 25ean izango da.



**LEMOA**

Udal laguntza zerbitzua. Adineko personak, erosketak edo farmaziako gauzak behar badabez deitu udaletxera 94 631 30 05 telefonora. Udaleko langileak emongo dabe zerbitzu hori saltokietara edo farmaziara joanda eta beharrezko produktuak etxera eroanda.

Eguaztenetan, 10:00etatik 14:00etara, Udalak Oingabiz: ariketa fisikoa eta bizitza osasungarria sustatzeko programea eskaintzen jarraituten dau modu telematikoa. Hitzordua, WhatsApp bidez hartu behar da 678 064 892 zenbakian.



**ZEANURI**

Eguzkiola Museoren artelanen bildumea osotzea. Artelan edo koadru ezagun bat imitau behar da. Benetako artelanaren argazkia (artistaren izen eta lanaren izenburuagaz) eta norberak egindakoa 676 767 516 telefonora bialdu apirilaren 17a baino lehen. Parte hartzaileen artean Eguzkiolako kamiseta bi eta boltsa bat zozketatuko dira.

Udal zerbitzua nagusiak etxean geldituteko. Medikuaerenera joan beharra, errekaduak edo farmaziako zeozer behar izan ezker deitu 94 673 91 46 edo 688 682 277 telefonora eta behar dana etxera eroango dabe.

**ZEBERIO**

Adindun edo etetik atera ezin diranai laguntzea emoteko, Zeberio Solidario taldean boluntario izateko, zein laguntzea eskatzeko, 688 817 309 telefonora deitu edo [zeberiosolidario@gmail.com](mailto:zeberiosolidario@gmail.com) helbidera idatzi.

**begitxio**

<http://www.begitu.org>

**irudi edo argazkiak be begitxio atalean**

Espazio honen helburua etetik urten ezin dan honetan jenteari adorea manteniduten lagundutea da eta persona konkretu bateri, talde bateri edo irakurle guztiai zuzendutako mezu animosoak jasoko doguz bertan.

Bialtzaile bakotxak 250 karaktere inguruko gura beste mezu bialdu leikez [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera. Mezuak irudi edo argazki bategaz be lagundu ahal dira gura izan ezker.



**konfinamentuaren alde onak**

Egoera berezi hau ahalik eta baikortasun handienagaz ikusteko ahaleginetan gabiz. Hainbeste ordu etxean egoteak, gauzak lasaitasun handiagoagaz hartzea dakar, eta ez beti ibiltzen garan moduan galapan. Bazkal ostea eguzkitan luzatutea, arrasti osoan ezelango konpromiso edo eginkuzunik ez daukazula jakinik, plazer handia da!!

Disfratatu daiguzan momentu honeek be!

Sara Gutierrez



**"berriro elkar ikusten dugunean..."**

Oin dala hilabete bat egiten genduzan gauzarik errazanak, oin gehien faltan botaten doguzanak dira. Eta berreskuratuten doguzanean, gehiago gozatzeko izan daitezala. Hau danau amaituten danean, eta barriro alkar ikusten dogunean, hartu daiguzan alkarregaz garagardao batzuk eta gozatu, egin daiguzan barre batzuk eta besarkatu maite doguzanak. Animo lagunok!

Martin Muro

# AKIMIKO

Kailoren

zer ekonomia daukagu  
behar ez ditugun gauzak  
erosi ezean hiltzen dena?

Aaitz

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### SALGAI

Sueteko beheko parterako egurrezko armairua eta estalgi, labea eta bitroagaz, merke saltzean dodaz. Txoko baterako aproposak. Deitu 657 777 542 zenbakira.

#### TREKKING BIZIKLETEA SALGAI

Kreidler (RT Raise) markakoa, taila handikoa, barri-barria; zikloturismoa egiteko beren-beregikoa. Prezio onean. Otzarea eta atzeko boltsak oparizat. Interesdunak deitu 685 711 598 telefonora.

### DANERIK

#### ETXEA ALOKAIURAN

Diman pisua alokatzen dot. Gela bi, komun bi, salea eta suete ederragaz. Garajea etxe azpian, argitsua eta orientazino onean. Hilean 700 euroren truke. Kontakutuen zenbakia: 666 125 725.

#### PARTZELEA ESKAINTZEN DOT

Lemoako Ajuriagerra kalean, kotxea aparketako partzela bat eskaintzen dot alokairuan. Interesdunak deitu 627 087 495 telefonora.

### ZUME BILA

Zume bizi zein lehor bila gabiz; erosi ala trukea egiteko aukeran. Landan izan ezkeru, gu geu mozteko prest gagoz. Telefonoa: 655 709 771.

#### KLASEAK EMOTEN DIRA

Fisika, Kimika, Matematika eta Biologiako klase partikularrak emoten dira Igorren. Interesdunak deitu 610 682 961 telefonora.

#### JENTE BILA

Zaparrada Batukada Taldeko kide izan gura dozu? Animau! Zure zain gagoz! Ipini gugaz hartu-emonetan, [zaparradabatukada@gmail.com](mailto:zaparradabatukada@gmail.com) emailen, Instagramen [@zaparrada\\_batukada](https://www.instagram.com/zaparrada_batukada) helbidean edo [@zaparrada](https://www.facebook.com/zaparrada_batukada) helbidean Facebook-en.

**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) era. Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Udalak emondako **Fasioren mendea** CD-liburu bana.

Joserra Undagoitia (Dima)  
Puri Barrenetxea (Artea)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 18 urte eta ehundaka lagun.

94 631 73 14 | [www.begitu.org](http://www.begitu.org) | [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

umean medu  
**sem**  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa: 94 631 92 96 • [semedu@hotmail.com](mailto:semedu@hotmail.com)

**Kepa Intxausti**  
TAXI ZERRITZUA  
609421222  
IGORRE

begitu

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, I.  
48110 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 35

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
[aitzol@coavn.org](mailto:aitzol@coavn.org) - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
ROSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
Tlf. 94 631 92 00

**ZUZENBIDE**  
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK  
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA  
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

NAIARA HORTZ KLINIKA  
Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 36

**begitu**  
ez da debalde

Emon gitxi, eta jaso asko. Badira, zure diru apur bat merezidu daben berbak. Izan zeu be **Begitu-laguna!**

www.begitu.org

begitu 18 338

Leire Ajoia Sengalen itandako epikan ubideztarari aharazketa

Alex Trikon liburu eta dokumentalak prestatzen dago

Dimako laietako Pelota Txapelketa enotatzen hasiak dira

**BEGITUK hamazortzi urte bete ditu**

Nagusi egin da orain eta sarbia presentia indartu gura da.

H

Orain hiriak hobera egin eta baina etxerako lurrean izan daitezke

Oraineko babil-behineko sailak sartze

**begitu** 18 urte

arratia  
ubide  
zeberio

**BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!**

**2020AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAWKA!**

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2020an egin zaitetz Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Hori egiteagaitik Areatzako Bainuetxean lagun birentzako zirkuitu termala + buffet menua zozketatuko dogu hurrengo hamabostaldian **Begitu-lagun** barrien artean.

Areatza Bainuetxea \*\*\*

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

**Zertu Kultur Elkarte** Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_ Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Kontu korrontearen zenbakia: ES \_\_\_\_\_

Aukeratu urteko kuotea:  35€  55€  75€

Edo e-mailez, bialdu datuok: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

\*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.